ASTEKO GAIA: ZAHAR-BERRI, 3 URTE BETETZEAR

# Arrasate PRESS

2001.eko
otsailaren 9a
528. zenb.



# San Balentin

## Maitasunaren geziak prest


Zergatik eskola publikoa?
Arrasateko Herri Eskola, gure eskola, bizirik dagoelako.
Matrikula epea otsailaren 5etik 16ra arte zabalik.
Paki, Arantza, Nerea eta Danel.
Erik Martin
ikasle ohia
Bertako lan giroa solidarioa delako, konpetentzia baztertzailerik gabe.
Alex Aguinaga
ikaslea
Batxilergoa
aukeratzerako
eskaintza zaba
emateaz gai
irakaslegoare
espezializazi
maila bermatz
duelako.
Begoña Akizu
irakaslea
Erabaki garrantzitsuak era demokratiko batean hartzen direlako.
Gelako ikasle kopuruak egokiak direlako, masifikaziorik gabe.
Jone Puente
gurasoa.
Jose Luis Abuin
gurasoa
Kalitate handiko hezkuntza alternatiboa ematen duelako.
Lan mundura eta Unibertsitatera begira, maila akademiko ezin hobea ziurtatzen duelako.
Esti Mendarozketa
gurasoa
Alfonso VIII. 1
Tel.: 943 79 20 69
erguin herri-eskola
Udala bidea, z/g
Tel.: 943 79 77 74
www.euskalnet.net/erguineskola
MUSAKOLA HERRI ESKOLA
Elkano, 10
Tel.: 943 79 04 49
arrasate aretxabaleta INSTITUTUA
Santa Teresa, 25 • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 38
Etxebarri auzoa, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 79 00
baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

## urteurrenak

### Industria museoa

■ **52. zenb.**

*(1990-02-16)*

Urte horretan industria museoa egiten hasiko zirela iragarri zuen Arrasateko Udalak. Ideiaren bultzatzailea Xabier Bengoa izan zen, orduko kultura batzordeburua. Urte horretako aurrekontuan museoarendako diru laguntza eskaintzea aurrez ikusi zuen.

Hasieran, industria museoa Monterroneko jauregian kokatzeko asmoa zuten.

### Erradiologia saila itxi zuten

■ **52. zenb.**

*(1990-02-16)*

Anbulatorioko erradiologia saila itxi zuten aste horretan, tresneria apurtu zela eta. Osakidetzak azterketak egin zituen, eta gela segurua zela baieztatu zuen. Lehen atentzioko zerbitzuko langileek, ordea, ez zituzten gauzak horrela ikusi, eta Donostiako Lankidetza ordezkaritzari X izpiak egiten zireneko gela ikuskatzea eskatu zioten.

### Metal-industriaren greba

■ **52. zenb.**

*(1990-02-16)*



Greba egin zuten Arrasateko metal arloko langileek. Koopetaribaren salbuespenarekin, Gelma izan zen irten ez zen enpresa bakarra. Lanhitzarmenaren negoziazioa gelditu zelako egin zuten.

### ATBren emisioak hasi

■ **52. zenb.**

*(1990-02-16)*

ATB emititzen hasi zela-eta, erreportajea idatzi zuen ARRASATE PRESSek. Astean hiru aldiz hasi zuen emisioa, eta martitzen, eguen eta zapatuetan errepikapenak ematen zituen. Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Karmele Zuazubiskar, Arantxa Lizaso eta Biktor Irigoien, Jon Sarasua, Jasone Diaz de Gereñu, Jose Mari Velez de Mendizabal, Jose Ramon Elortza, Mikel Irizar eta Patxi Montero izan ziren lehenengo aurkezleak.

## besteek esana

«Zorionez, batzuek publizitatea egiterakoan herri honetako biztanle euskaldunak hartzen dituzte kontuan. Horixe da Arrasate Zutarri eraikuntza enpresaren kasua. Eurek eskaintzen dituzten zerbitzuen berri ematen dute jaso dugun iragarki orrian, euskaraz eta euskara txukunean gainera. Beste batzuek ikasiko balute!

**ARGIA**

*(2001-01-28)*

**ARKO**
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE** PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
**Arrasate Irratia:** 943 71 17 31

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Kazetariak**: Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea**: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:**: Sergio Azkarate. **Administrazioa**: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua**: Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemailea:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna**: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © **ARRASATE** PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**ARRASATE** PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE** PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala**: Maddi Trutxuelo.

Arrasateko Udalaren laguntzaz | Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

## aurkibidea


- Lehen begiratua . . . . . . . . 3
- Asteko hitzorduak . . . . . . . 4
- Inkesta . . . . . . . . . . . . . . 5
- Astearen errepasoa. . . . . . 6
- Orain eta hemen . . . . . . . 7/8
- Txutxumutxuak . . . . . . 9/12
- Asteko gaia **Zahar nahiz berri, guztiok euskaldun** . . 16/17
- Zaldibar areto futbola. . . . . . . . . . 18
- Kirolak jokoan. . . . . . 20/21
- Kulturaren txokoa . . . . . . . . . . . 23/24
- Uhinetan barrena . . . . . . 25
- Foto zaharra . . . . . . . . . . 26




## ZERBITZUAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualatorioa .......... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ............ 943 79 39 00
(emakumeak) ........ 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

**Larrialdiak**
SOS Deiak .................... 112
Gurutze Gorria ....... 943 76 55 76
DYA ................ 943 78 71 57

**Anbulatorioak**
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatera .... 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan ............ egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera...... 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan . 09:00etatik 17:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria ... 943 03 52 50
- Espezialitateak ....... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea .......... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak: ... 943 03 53 11

Aretxabaleta ......... 943 79 74 58
Aramaio ............. 945 44 53 40

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

**Ertzaintza**
Arrasate .............. 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea .......... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa ................. 900 40 05 23
...................... 943 79 78 44
...................... 943 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ............... 943 79 12 22
PESA................. 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentroak**
Iturbide Egoitza ........ 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**
Monterron ............ 943 77 01 05

## MEZAK

**San Joan parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna) |

**San Frantzisko eliza**

| Larunbata | |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz) |
| Igandea<br>09:00 (euskaraz) | 12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) |

**Uribarri parrokia**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz) |

**San Andres eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |

**Santa Teresa eliza**

| Larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (elebiduna) | 10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz) |

**Santamañako eliza**

| Jaiegun bezpera eta larunbata | Igandea |
|---|---|
| 19:00 (gaztelaniaz) | 12:00 (gaztelaniaz) |

## ur eta **zabor zergak**

Otsailaren 15ean, datorren eguenean, bukatuko da ur eta zabor zergak ordaintzeko borondatezko epea. Gero, %20ko gainkargua ezarriko da.

## korrikaren **bilera**

Korrika batzordea eratzeko bilera egingo da astelehenean Monterronen, arratsaldeko 7etatik aurrera. Batzordea eratu eta lana banatuko dute asteleheneko bileran.

## elkarteendako **diru laguntzak**

Udalak dei egiten die herriko gazte eta emakume elkarte guztiei diru laguntzak jasotzeko eskakizunak aurkez ditzaten, hala gura badute. Emakume elkarteek otsailaren 15a arte izango dute epea, eta gazte elkarteek, martxoaren 15a bitartean.

Arrasateko elkarteak izan beharko dira aurkeztutako guztiak. Udaletxean eskuragai duten inprimakia bete beharko dute, eta iazko memoriarekin batera, aurtengo programa eta aurrekontua aurkeztu beharko dute.

Horrekin batera, espetxeetan dauden mondragoetarren senideendako ere zabaldu da diru laguntzak eskatzeko epea. Presoa bisitatzeko egiten dituzten joan-etorriak ordaintzeko izaten dira laguntza hauek. Eskaerak aurkezteko epea hil honen 28an bukatzen da.

## oteiza **ezagutuz**

Zahar-Berriko berba-lagunak Oteizak Arantzazun dituen eskulturak ikustera joango dira otsailaren 10ean. Goizeko 9:30ean elkartuko dira Arbolapetan. Otsailaren 17an, berriz, Oteizaren erakusketa bisitatuko dute, Kursaalen. Bisitaldi gidatuak izango dira.

## mendi-eski **zeharkaldia**

Besaide Mendizale Elkarteak Belagoara mendi-eski zeharkaldia antolatu du. Otsailaren 17 eta 18an egingo dute, baina izenematea 12an edo 13an egin behar da, 19:30etik 20:30era. Federatua egotea ezinbestekoa da. Bestalde, hilaren 12an eta 14an egingo dira Besaideren mendi medikuntza ikastaroko hurrengo jardunaldiak. Astelehenean, lesioez berba egingo dutea eta asteazkenean, mendiko kirolen alderdi psikologikoez.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

**Egubakoitza, 9**
- Azkoaga, Iturriotz

**Zapatua, 10**
- Korkuera, Musakola

**Domeka, 11**
- Irizar, Erguin

**Astelehena, 12**
- Amezua, Santa Marina

**Martitzena, 13**
- Zabala, Zarugalde

**Eguaztena, 14**
- Ruiz, Maalako Errabala

**Eguena, 15**
- Morales, San Andres

ALDI BATERAKO KONTRATUA

## SANEAMENDU ETA AUZOETAKO TEKNIKARIA

BALDINTZAK:
- 3. HE.
- Erdi mailako unibertsitate titulua, espezialitate zientifikoan edo teknikoan.

EGINKIZUNAK:
- Saneamendu sarea berrantolatzea.
- Auzoetako batzordeari laguntza teknikoa ematea.

OINARRIAK:
Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko Udaleko pertsonal Sailean jaso daitezke.

INSTANTZIAK AURKEZTEKO EPEA:
Otsailaren 19an, berau barne, amaitzen da.

ARRASATEKO UDALA — Pertsonal Saila

# Maitemintzerako orduan, bat-bateko bihotz kolpean sinisten duzu?

*Otsailaren 14ean San Balentin eguna ospatzen dugu*



**Monserrat Calzada**
**(34 urte)**
**Etxekoandrea**

Bai, sinisten dut. Umetan, inoiz horrela maitemindu izan naiz.



**Izaskun Otaño**
**(51 urte)**
**Etxekoandrea**

Ni egunero maitemintzen naiz, urte guztian egon behar da maiteminduta.



**Ana Martiarena**
**(41 urte)**
**Langilea**

Bai, sinisten dut bat-bateko kolpe horretan: gaztetan maitemintzen nintzen horrela.



**Rafael Carmona**
**(64 urte)**
**Erretiratua**

Horixe sinisten dudala! Ni hala maitemindu nintzen emaztearekin, eta aste honetan bete ditugu 38 urte elkarrekin! Oraindik maiteminduta nago!




**Iban Egia**
**(25 urte)**
**Langilea**

Ez, ez dut sinisten. Nire ustez, lehendabizi pertsona ezagutu egin behar da.



**Oskar Morales**
**(26 urte)**
**Langilea**

Bai, posible da, bai noski!



**Jose Uribetxeberria**
**(53 urte)**
**Langilea**

Ez dut sinisten; maitemintzeko harremanak eduki behar dira aurrez.



**Dolores Rodrigez**
**(60 urte)**
**Etxekoandrea**

Ni hala maitemindu nintzen. Senarra eta biok mendian geunden lanean, eta elkar ikusi orduko maitemindu ginen.

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak

Super Armeko

- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

## USTEAK USTE

### *Aldaketa giroa*

**Pasa den asteko zutabean, Marijok 'gero arte' zioen, beste lan batera doa eta. Bejondeiola! Lan ona egin du gurean, eta han ere egingo du.**

**Aldaketa giroan bizi da ARRASATE PRESS aspaldi. Iazko udaberrian lagun galdua etorri zitzaion, irratia. Eta berehala ekin zioten elkarlanari, ahulenaren mesedetan. Gaur, lantalde bakarrak egiten ditu biak.**

**Telebistarako lan egiten ohituak zeuden Presskoak. Eta GOITB-ren sorrerak arindu egin zien lana. Telebista berria erredakzio propioa garatuz joan da, eta herri gehiagok eman du berea.**

**Urte amaieran GOIENKARIA etorri zen, eta Press mehetu, eduki batzuk eskualde osora zabaltzen direlako. Presskoek - Marijok bereziki- ekarpen handia egin diote eskualdeko astekariari.**

**Eta aurrerantzean egingo ere. GOIENAko elkarteek beraien hedabideak kooperatibaren esku uztea erabaki dute. Lantaldeak bateratu eta antolakuntza emankorrena prestatu ahal izateko.**

**Horregatik, aldaketak ez dira amaitu. Jarraituko dugu berri ematen.**

**Mikel Irizar**

## astea bi hitzetan

### Kale-argi berriak

Otalora kalean aparkalekuak egiteko eta sareak hobetzeko egiten ari diren lanekin lotuta, udalak aste honetan bi erabaki hartu ditu: batetik, aparkalekuko lanetan beste milioi erdi pezeta inbertitzea, eta bestetik, kale horretarako argi berriak erostea. Guztira, 11 kale-argi erosiko dira, ia 900.000 pezetan. Izan ere, lanak egiten hasi eta gero ikusi dute Otalorako kale-argien egoera oso txarra dela, eta aldatzeko beharrean daudela.

### Langileen %3'2 MCCn

Orain bi urte Euskadiko langileen %3'2 Mondragon Korporazio Kooperatiban ari ziren lanean; hain justu, 45.272 lagun. Sektore industrialean, ostera, langile kopurua igo egiten da: %7'3 ari ziren lanean. Hortaz, 1999an MCCk ekarpen handia egin zion euskal ekonomiari.

Datu horiek pasa den eguenean eman zituzten MCCko ordezkariek. Adierazitakoaren arabera, nazioartera ere asko zabaldu da kooperatiba korporazioa. 1999an 167 milioi pezeta esportatu zituen, Gipuzkoako eta Euskal Herriko talderik esportatzaileena bihurtuz. Lanpostuek ere gora egin dute azken bi urteotan, eta Garaia proiektua da etorkizuneko erronka.

### Arizmendi eta informatika

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen laguntzez baliatuz, 480 milioi pezetako inbertsioak egin ditzakete EAEko ikastolek datozen lau urteotan.

Besteak beste, Arizmendi Ikastola Elkartea baliatuko da laguntza horietaz, aurten, hezkuntza maila guztietarako ekipamendu informatikoa erosiko du-eta. Sare informatikoa ere jarri gura du. Helburua da komunikazio bideak hobetzea.

Horretarako, zerbitzari nagusi bat jarri eta gainontzeko ordenagailuak hara konektatuko dituzte. Sare horrek irakasleen arteko komunikazio zuzena ahalbidetuko du. Epe luzera, posible izango da bideokonferentzia bidezko hitzaldiak edo ordenagailu bidezko automatrikulak egitea.

### Transformadorea

Musakola auzoko A-20 errepidean elektrizitatea sartzeko egin beharreko lanengatik, 26 milioi pezeta pasatxo ordaindu behar dizkio udalak Iberdrolari. Ordainketa egin eta gero hasiko dira lanok egiten. Hain justu, transformadore zaharra bota eta berria eraikiko du Iberdrolak, Musakolako industrialdean dauden enpresa guztiek potentzia nahikoa izan dezaten. Horrez gain, kanpoaldean dauden hari guztiak lur azpian sartuko dituzte.



### Haize bortitza

Astean hego haize zakarra izan dugu geure artean, eta susto bat baino gehiago eman du, gainera. Horren adierazlea da eguaztenean haizeak Maalan automobil baten gainera bota zuen seinalea. Zorionez, autoak ez zuen kalte larregirik izan, azalekoak, besterik ez.

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

# Bost anbulantzia Indiara

Eroskik bost anbulantzia bidali gura ditu Indiara, han izandako lurrikarari aurre egiten laguntzeko. Hori lortzeko, diru bilketa egingo dute Eroski Taldearen hiper eta maxi denda guztietan. Martitzenean hasi zen kanpaina, eta datorren otsailaren 17an bukatuko da. El Salvadorrekin egin den moduan, oraingoan ere, txartel-laguntza bitartez jasoko da dirua. 100 pezetako txartelak daude hiper eta maxi Eroskietako sarreretan.



Anbulantzia bakoitzak hiru milioi pezeta balio du.

Dagoeneko, Eroski Taldeak bidali du anbulantzia bat Indiara, euren artean jasotako diruarekin ordainduta. Itxura denez, Indiaren kasuan, dirua bidaltzea baino nahiago dute erabili daitezkeen gauzak jasotzea, eta horrexegatik erabaki zuen Eroskik Gurutze Gorriarekin elkarlana egin eta anbulantziak bidaltzea.

Eroskiren ekimenaz gain, baina, badaude beste batzuk abian. Esaterako, Caritasek kontu korrontea ireki du, nahi duenak dirua sar dezan. Hauxe da zenbakia: 3035 0060 44 0600099000.

**EL SALVADOR**

El Salvadorko kanpainari dagokionez, ostera, 334.700 pezeta batu dira Arrasateko Hiper Eroskin. Joan den urtarrilaren 18an hasi zen kanpaina, eta martitzenean bukatu zen. Eroskiko hiper, maxi, eta denda guztietan jarri zen abian kanpaina hori, eta, hortaz, oraindik ezin dute zehaztu batutako kopuru osoa. Edozelan ere, aurrez ikusitako moduan, jasotako kopurua borobiltzeko asmoa du Eroski Taldeak. Gero, diru guztia Intermonen bitartez bideratuko da El Salvadorrera.

Fagor Taldean, ostera, San Andresko eta Garagartzako lantegietan gura izan duenak lanordu bati dagokion dirua El Salvadorrerako eman du.

# Herri autobuserako laguntzak

Udalak deialdia egin du udal zergak ordaintzeko laguntzak banatzeko. Emango diren laguntzen artean, herri autobus zerbitzua ere sartuko da aurten. Hortaz, 2001erako ezarritako baremoan sartzen diren erabiltzaileek laguntza ekonomikoak jasoko dituzte.

**MARTXOA**

Laguntzak eskatzeko epea martitzenean zabaldu da eta martxoaren 12a artekoa izango da. Derrigorrezko agiri batzuk aurkeztu beharra dago: familiako kide guztien nortasun agiriak, eskatzailearen errolda ziurtagiria eta elkarbizitzako ziurtagiria, hileroko sarreren egiaztagiriak eta finantza ondasunen egiaztagiriak. Agiri guztiak aurkeztu ezean, eskaera ez da tramitatuko.

# Goio Arana mondragoetarra irabazle

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak badu logotipoa: Goio Arana mondragoetarrak diseinatutako logotipoa izango da aurrerantzean kontseiluko irudia. 150 lan baino gehiago aurkeztu dituzte, eta guztien artetik aukeratu dute Goio Arana mondragoetarrarena.

Bi marrazki nagusi ditu logotipoak: eskuak, batetik, eta eskuek egiten duten gezi forma, bestetik. Horrekin batera, hiru kolore erabili ditu egileak: berdea, laranja eta morea.

**ESANGURA**

Eskuen eta koloreen bitartez, egileak adierazi gura izan du emakumearen berdintasunaren alde lan egiteko elkartzen den Emakumeen Kontseiluak iritzi eta pentsaera askotariko pertsonak batzen dituela.

Eskuek egiten duten geziak, ostera, adierazi gura du Emakumeen Kontseiluaren aurrerako ibilbidea.

Pozik hartu du erabakia Goio Arana mondragoetarrak.










# Airea eta ura kutsatuta daude herritarren ustez

Horixe da ingurumenaren gainean mondragoetarrek duten kezkarik handiena: gure inguruko ura eta airea kutsatuta daudela. Eta horrelaxe jaso du udaleko Ingurumen Sailak 400 mondragoetarri egindako inkesta baten. Arrasate Garapen Jasangarriaren Bila izeneko kanpainaren barruan egin da inkesta hori.

Inkestaren emaitzek erakusten dutenez, 10etik 7'2 kezkatuta daude ingurumenaren egoerarekin. 10etik 8k uste dute Deba eta Aramaio errekak oso kutsatuta daudela, eta herritar gehienek uste dute herriko zirkulazioaren egoera ere oso txarra dela.



Deba eta Aramaio errekak oso kutsatuta daudela.

### KEZKATUTA

Horren parean, 10etik 9k erantzun dute etxean egiten dutela zaborren banaketa, birziklapenean laguntzeko. Baina, gero, ikusten da erantzun hori ez datorrela bat zabor biltzaileek jasotzen dutenarekin. Horrez gain, energia aurreratu beharra dagoela uste dute 10 lagunetik 6k.

Oro har, ingurumenari dagokionez, Mondragoeren egoera nahiko kezkagarria dela uste dute herritarrek, baina, era berean, inguruko herrien parekoa dela. Herritarrak gara, inkestaren emaitzen arabera, egoera horren erantzule zuzenak, eta ingurumena hobetzen laguntzeko prest dagoela azaldu du gehiengoak.

Inkestak erakusten du jendeak ingurumenarekiko geroago eta kezka handiagoa duela. Hori bai, kezka hori zalantzan jartzen da ingurumenaren babesa interes pertsonal edo ekonomikoen parean ipintzen denean.

### EGOERA ZEIN DEN

Baina, emaitza horiek behinbehinekoak dira, behin betiko emaitzak ingurumenaren gainean egiten dabiltzan jardunaldietan jakinaraziko dira eta. Azterketa hori Arrasateko Agenda 21en barruan kokatutako egitasmoa da. Besteak beste, ingurumenaz mondragoetarrek duten iritzia eta jarrera zeintzuk diren jakin gura dute. Horretarako, esan bezala, 400 inkesta egin dituzte abenduan San Viator ikastetxeko zenbait ikaslek.

## Eman diete egoitza

Down-en sindromea duten gaixoen fundazioak eta AFAGIk, Alzheimerdunen senideen elkarteak, lortu dute Mondragoen egoitza izatea. Udalari egin zioten eskaera, eta Arrasate Pasealekuko 3. zenbakiaren behealdeko lokala utzi die. Hortaz, hemendik aurrera hantxe izango dira aipatutako bi elkarteak.

## Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak

Lagun ugarik erabili dute 2000. urtean udaleko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten laguntzak. Hauexek dira emandako datuak:

| ZERBITZUA | ERABILTZAILEAK | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| Pobreziari aurre egiteko | 100 pertsona | 21 milioi pezeta |
| Etxez etxeko laguntza | 212 pertsona | 95 milioi pezeta |
| Eskean datozenei laguntza | 116 pertsona | 60 mila pezeta |
| Drogazaleei | 10 pertsona | 300 mila pezeta |
| Taxi-bonua | 8 pertsona | 600 mila pezeta |

Diru kopuruak borobilduta daude







# KALEAN BARRENA ETA UHINETAN BARRENA

Santa Ageda eguna pasatu dela eta, neska-mutikoek tradizioari eutsi nahi izan zioten. Arrasate Ikastolakoak kalerik kale irten ziren joan den egubakoitzean; eta astelehenean San Andres herri eskolakoek Arrasate Irratiko entzuleendako, bereziki, abestu zuten.






GUNEAK:

HAUR HEZKUNTZA

- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (3-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)

Matrikula zabalik Otsailaren 5etik -16ra

LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)

- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 urte)

- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen

BULEGO INFORMATIBOAK

| Arrasate | Aretxabaleta | Eskoriatza |
|---|---|---|
| Ferixalekua | Arizmendi | Jose Arana-Almen |
| 15:00-19:00 | 17:00-19:00 | 14:00-18:00 |
| 943 77 20 25 | 943 79 31 32 | 943 71 44 86 |

Arizmendi ikastola

# RENAULT

# AUKERA EZIN HOBEA




**MEGANE EXPRESSION 1.6 16V 110 CV**
Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Pintura metalizatua
SAT irratia
**2.195.000 pezeta***
13.192,22 euro*
5 auto aukeran



**MEGANE COUPE RXI 1.6 16V 110CV**
Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko llantak
Pintura metalizatua
SAT irratia
Aleroia
**2.190.000 pezeta***
13.162,17 euro*
5 auto aukeran

Orain, estra guztiak seriekoak dira

## Bilatu zure izarra




**SCENIC RT 1.9 DCI 105 CV**
ABS, 4 aire-poltsa
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
Pintura metalizatua
SAT irratia
**2.540.000 pezeta***
15.265,71 euro*
6 auto aukeran




**CLIO RT 1.2 3 ate**
Gidariaren eta bidaiariaren aire-poltsak
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
**1.350.000 pezeta***
8.113,66 euro*
7 auto aukeran



**LAGUNA RXE 1.9 DCI 110CV**
Klimatizagailua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko llantak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
Narruzko eserlekuak
**3.325.000 pezeta***
19.983,64 euro*
5 auto aukeran



**SCENIC RX4 2.0 16V 140 CV**
Klimatizagailua, ABS
Trakzioa lau gurpiletan
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko llantak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
**3.325.000 pezeta***
19.983,64 euro*
4 auto aukeran

*Prever plana barne.
Posible da modeloak eta iragarritako autoak bat ez etortzea.

# MECA

**Erakusketa eta tailerra:** Amillaga, 5. **BERGARA**. Tel.: 943 76 40 68
**Erakusketa eta tailerra:** San Andres auzoa. **ARRASATE**. Tel.: 943 71 24 72

## EUSKADI IRRATIA ARRASATEN






Euskadi Irratia Arrasateko Udal Euskaltegian izan zen joan den eguaztenean. Euskaltegiko hamar ikaslek hartu zuten parte *Lauretan Babel* lehiaketan.

## MAIALEN FERNANDEZ



Ez zuen Miss Euskadiren koroa eraman, baina pozik geratu zen esperientziarekin Maialen Fernandez de Arroiabe arrasatearra. Tenerifen izan ziren hautagai guztiak, eta hantxe atera zuen argazki hau. Orain, modelo bezala trebatzen dihardu Maialenek. Zorte on, neskatxa!






## HERRI KOMUNIKABIDEAK BISITATUZ

**Joan den astean Hego Amerikako indigenen inguruko hitzaldia eman zuen Alfredo Lozano aditu ekuadortarrak. Gero, ARKOn izan genuen, bisita egiten. Jakingura handia erakutsi zuen Alfredok herri komunikabideen gainean.**

## OHITURAK BERRESKURATUZ



Garagartzako auzotarrak kantuan atera ziren joan den domekan. 'Txarri hanka' izena du taldeak, eta umore onez ibili ziren bazterrak alaizten. Eztarriz fin dabiltza!


# 01-02 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



- **Epea:** otsailaren 5etik otsailaren 16ra
- **Non: UMEZAINTZAN**
  (San Andres,8 /San Josepe auzoa)
  **Tel.: 943 77 20 25** /ext.:301
- **Ordutegia matrikulatzeko:**
  14:30-18:30 arte inprimakiak jaso eta entregatzeko.
  Instalazioak ikusi edo entrebista pertsonala egin nahi izanez gero telefonoz aurretik abisatu.

Umezaintza

ARRASATEKO UDALA **Hezkuntza Saila**

# Zure maitasuna erakutsi...




## ♥ Sikol

Olarte, 31
Tel.: 943 79 89 32




## ♥ Zubiaga

Maalako Errabala, 5
Tel.: 943 79 19 25

## ♥ Lasagabaster

Zerkaosteta, 1
Tel.: 943 79 13 55




## ♥ Buart

Ignacio Zuloaga, 2
Tel.: 943 71 27 84



# ...zure maite



♥ **Laket**
Otalora z/g
Tel.: 943 79 11 72



♥ **Marivi loradenda**
Alfonso X. Jakintsua, 5
Grupo San Juan-en
Tel.: 943 79 15 59
943 79 81 54

*Lorerik*
*ederrena*
*zure maitearentzat*




♥ **B...iz**
Erdiko ...
Tel.: 94...

♥ **Lore**
Olarte, 10
Tel.: 943 79 52 50




*Zuk ere*
*zaintzea*
*behar*
*duzulako*

BIOTHERM HOMME

Top: 11.200 pta. • Praka: 9.900 pta.



♥ **Zubizarreta**
**Galeria 44**
Zerkaosteta, 8
Tel.: 943 79 90 50

♥
Erdik...
Tel.: ...

# ...ak merezi duelako









**Oihana**

Arrasate pasealekua, 8
Tel.: 943 77 14 56



Top: 11.200 pta. • Praka: 9.900 pta.

**Udalaitz**

Erdiko Kale, 42
Tel.: 943 77 00 68

**Ganbara**

Erguin, 2-behea
Tel.: 943 77 12 37



**Zabaleta**

Maisu Arano (Portaloia), 2
Tel.: 943 79 12 32



***Ederra baino ederrago senti zaitezen***

# Zahar nahiz berri,



**Datorren martxoan hiru urte beteko ditu Zahar-Berrik, eta zer edo zer «handia» egiteko asmoa dute. Hiru urte horietan 172 lagunek esku hartu dute ekimen horretan, eta hutsunea beteaz doa.**

**Hutsunea handiagoa zen orain hiru urte. Orduan, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak ikerketa egin zuen euskararen erabilera jakiteko: arrasatearren %27,8k bakarrik erabiltzen zuten euskara komunikazio tresna arrunt bezala. Gauzak horrela, AED arduratu egin zen erradiografia horren aurrean.**

Belen Aranbarrik, Zahar-Berri ekimenaren dinamizatzaileak, honela dio: «Mondragoen euskaldun ugari zegoen, baina erabilera oso urria zen. Euskaltegietan ikasle asko zegoen, baina euskalduntze prozesua oso gutxik bukatzen zuten. Ez ziren euskaraz bizi, eta ez zuten euskaraz pentsatzen». Hutsune hori betetzeko, Zahar-Berri proiektua abiarazi zuen AEDk, Euskal Herriko beste herri batzuetan horrezkero abian zeuden bizipenen eredua jarraituz. Euskaldun zaharrak eta berriak elkartu eta azken horiei mintza-praktika egiten laguntzea zuen helburu Zahar-Berrik.



Euskaldun berriak biltzea erraza izan zen. AEDren arabera, euskaltegietan dihardutenak gaztelaniazko ingurunetik datoz, eta euskaraz berba egiteko aukerarik ez dute izaten eguneroko bizitzan. Euskaltegian ikasitakoak egunerokotasunera eramateko aukera eman behar zitzaien.

Zahar-Berrik bi aukera nagusi eskaintzen dizkie euskaldun berriei: batetik, euskaldun zahar bat eta euskal-

**Ez gara konturatzen euskaldun zaharrok zein garrantzitsuak garen euskaldun berriendako**

# uztiok euskaldun



## DATOZEN EKINTZAK

**Zahar-Berrik hainbat behar ase gura ditu: aisialdia, lagunak egiten laguntzea, euskal kultura ezagutaraztea eta gauza berriak ikastea, ez bakarrik euskararen ingurukoak. Udaberrian ospatuko dute Zahar-Berriren urteurrena, baina hilero egiten dute ekintzaren bat.**

**Bihar, zapatua, adibidez, Jorge Oteiza eskultorearen lanak ikustera joango dira. Arantzazuko basilikako apostoluak eta Pietatea ikusiko dute, eta argibideak jaso. Datorren zapatuan Kursaaleko museoan dagoen Oteizaren erakusketa bisitatuko dute.**

**Gainera, iazkoak izandako arrakasta ikusita, aurten ere torrada lehiaketa antolatuko du Zahar-Berrik.**

dun berri bat edo bi elkartzen dira, euskara ikasgelaren hoztasunetik kaleko epeltasunera eramateko; eta bestetik, Zahar-Berriko parte hartzaile guztiek osatutako taldea. Denetariko ekintzak antolatzen dituzte elkarrekin: mendi irteerak, Euskal Herria bisitatzeko bidaia laburrak, afariak, lehiaketak, irteera kulturalak…

Edozeini zabalik dago Zahar-Berri. Orain, erronketako bat da euskaldun zahar gehiago erakartzea. «14 euskaldun berri ditugu sartzeko prest, eta zazpi euskaldun zahar besterik ez. Topatu ezinean gabiltza», onartzen digu Belenek. Denek esaten dute euskaldun berriak gehiago inplikatzen direla. Euskaldun zaharrek onartzen dute eurek hartu behar dutela euren gain zabaltze lana, «ez garelako konturatzen euskaldun zaharrok zein garrantzitsuak garen euskaldun berriendako». ■

**Leire Kortabarria**

**(1) Zergatik sartu zineten Zahar-Berrin?**
**(2) Zer ikasi duzue Zahar-Berrin?**
**(3) Zein muga ikusten dituzue?**



**UNAI BERGARETXE:**

(1) Bat nentorren Zahar-Berriren filosofiarekin, eta lagunak egiteko aukera ona iruditu zitzaidan.
(2) Euskara baloratzen ikasten da. Ikusten duzu euskaldun berri mordoa ikasi nahian dabilela, eta hizkuntza gehiago estimatzen duzu.
(3) Euskaldun zaharrok ez gara konturatzen gure laguntza zein inportantea den euskara ikasten ari direnendako.



**MARI KARMEN AGUILAR:**

(1) Ikasgelan asko ikasten nuen, baina praktikara eraman barik nengoen. Gainera, euskalkia ez nuen ulertzen.
(2) Euskalkia hobeto ulertzeko gai naiz, berba egitean trebetasuna lortu dut eta lagun asko egin ditut.
(3) Beldurra muga da guretako, eta hori gainditu beharra dago. Norbaitekin gaztelaniaz eginez gero harremana, nahiz eta euskaraz dakiela jakin, gaztelaniaz egiten dizu berba.



**XALBA DALMAU:**

(1) Berba egiteko, aukera bat eman behar dizute, eta Zahar-Berrin ikusi nuen nik neure aukera.
(2) Zuk berba egitea gauza bat da; baina ulertaraztea, askoz zailagoa. Zahar-Berri han lasai egin nezakeen berba, ondo edo gaizki egin; horrela ikasten da. Iaiotasuna lortu dut.
(3) Ohiturak aldatzea da pausorik zailena.

# zaldibarko **areto futbola**

## Emaitzak

**A taldea**

DKB
Lasagabaster 6 - AL Ion 1
Serengeti 2 - Katxiporra 2
Bikain Akademia 5 - IKP 5
Betrayer 2 - Leya 2
Kanpanzar Harrobia 3 - Komando Alpargat 2
Txeyenex 1 - Goma 2 6
Aurrera Bolie 7 - YK Azkena 3

**B taldea**

Kobate 3 - AT Celaya 4
EPEH 5 - Full Duplex 4
Irati STS 11 - Abokajarro 1
Etxerat Taberna 6 - Sass T 0
Rayo Alde. 4 - Pep. Inserso.com 1
Kamasutra 3 - Usotz Potroak 2
Txotx 4 - Alai Gozokiak 3

## Sailkapenak

| A taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Aurrera Bolie | 9 | 8 | 1 | 0 | 48 | 16 | **17** |
| Lasagabaster | 9 | 7 | 1 | 1 | 50 | 24 | **15** |
| Txapime Dribling | 9 | 6 | 1 | 2 | 41 | 25 | **13** |
| Komando Alpargat | 9 | 6 | 1 | 2 | 40 | 28 | **13** |
| IKP | 9 | 6 | 1 | 2 | 39 | 37 | **13** |
| AC Surkos | 9 | 6 | 1 | 2 | 36 | 32 | **13** |
| Serengeti | 9 | 5 | 3 | 1 | 33 | 25 | **13** |
| YK Azkena | 9 | 5 | 2 | 2 | 28 | 26 | **12** |
| Goma 2 | 9 | 4 | 3 | 2 | 46 | 32 | **11** |
| Bikain Akademia | 9 | 4 | 3 | 2 | 41 | 29 | **11** |
| Katxiporra | 9 | 4 | 1 | 4 | 37 | 44 | **9** |
| Kanp. Harrobia | 9 | 2 | 1 | 6 | 26 | 40 | **5** |
| Leya | 9 | 1 | 3 | 5 | 19 | 27 | **5** |
| Makanaki | 9 | 2 | 1 | 6 | 15 | 19 | **5** |
| Betrayer | 9 | 1 | 2 | 6 | 38 | 49 | **4** |
| Txeyenex | 9 | 1 | 0 | 8 | 17 | 44 | **2** |
| AL Ion | 9 | 0 | 1 | 8 | 27 | 71 | **1** |
| The Pippol | 9 | 0 | 0 | 9 | 7 | 20 | **0** |

| B taldea | PARTIDAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Etxerat Taberna | 9 | 8 | 1 | 0 | 66 | 18 | **17** |
| Iriztu | 9 | 7 | 1 | 1 | 39 | 16 | **15** |
| AT Celaya | 8 | 7 | 0 | 1 | 38 | 24 | **14** |
| Pep.Inserso.com | 9 | 6 | 0 | 3 | 37 | 27 | **12** |
| Rayo Aldeano | 9 | 5 | 1 | 3 | 55 | 34 | **11** |
| Irati STS | 9 | 5 | 1 | 3 | 48 | 26 | **11** |
| Kamasutra | 9 | 5 | 1 | 3 | 39 | 29 | **11** |
| Fraguel Gol | 8 | 5 | 0 | 3 | 33 | 29 | **10** |
| Usotz Potroak | 8 | 4 | 1 | 3 | 34 | 13 | **9** |
| KJ Basati | 8 | 4 | 0 | 4 | 39 | 27 | **8** |
| EPEH | 8 | 4 | 0 | 4 | 24 | 31 | **8** |
| AKTA | 9 | 3 | 1 | 5 | 34 | 33 | **7** |
| Full Duplex | 8 | 3 | 1 | 4 | 29 | 32 | **7** |
| DKB Kobate | 9 | 3 | 1 | 5 | 25 | 37 | **7** |
| Txotx | 9 | 2 | 1 | 6 | 15 | 45 | **5** |
| New Makai | 8 | 2 | 0 | 6 | 14 | 50 | **4** |
| Alai Gozokiak | 7 | 1 | 1 | 5 | 20 | 41 | **3** |
| Abocajarro | 8 | 1 | 0 | 7 | 23 | 57 | **2** |
| Sass T | 9 | 0 | 1 | 8 | 13 | 56 | **1** |

### BARKAMEN ESKE

Hau da jira hau! Eurek abisua eman eta eurak txarrenak! Norgehiagokak jokatu beharreko ordutegia aldatu zutela iragarri genizuen joan den astean. Eta gero, eurak, antolatzaileak, berandu iritsi ziren. Arauak guztiondako izango dira, bada?

Kontua da, gertatutakoagatik barkamena eskatu nahi dizuetela antolatzaileek.

Eta horrekin batera, eskerrak eman nahi dizkizuete, zuei, Zaldibarko jokalarioi, zuen aldetik konponbidea aurkitzeagatik “historiari”.

Dirudienez, antolatzaileak berandu iritsi ziren, baina hori ez zen oztopo izan jokalari trebeendako. Euren baloia atera eta hortxe aritu ziren norgehiagoka jokatzen. Hori bai ekimena izatea!

Hala ere, badirudi epaile lanetan aritzen direnak ez dutela ekimen bera, eta hori dela eta, «euren aldetik zerbait jartzea komeniko litzateke, arazorik egon ez dadin». Bide batez, gogoratu txapelketaren bigarren aldian epaile izan nahi duenak astelehenetan gaztetxean elkartzen direla antolatzaileak. 19:00etatik 20:00etara egoten dira han, eta izena eman nahi duenak gaztetxera joatea besterik ez du. Jakin dugunez, epaile izatea aukeratzen duenak sari bat jasoko du.

### ZURI-GORRI IZAN NAHIAN

Athletic taldeak 7-0 galdu zuen Bartzelonan, baina Camp Noun ezezik, gurean ere ikusi zen gol zaparradarik. Zaldibarko pilotalekuan 11-1, 6-0 eta 7-3ko markagailuak ikusi ziren. Eta Iturripen, 6-1 eta 1-9ko emaitzak. Irati STS izan zen golegile nagusia. 11 gol sartu zizkion Abokajarro taldeari. Zorionak, mutilak! Eskerrak asteburu honetan atseden duten.



## Hurrengo partidak /10. jardunaldia

**Otsailak 10, zapatua**

| **Zaldibar** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 11:00 | Katxiporra - Goma 2 | (Usotz Potroak) |
| 12:00 | New Makai - Utsotz Potroak | (Goma 2) |
| 13:00 | Rayo Aldeano - AT Celaya | (New Makai) |
| 14:00 | Lasagabaster - Aurrera Bolie | (AT Celaya) |
| 15:00 | AC Surkos - Bikain | (Lasagabaster) |
| 16:00 | KJ Basati - DKB | (AC Surkos) |
| 17:00 | You Know - Betrayer | (DKB) |
| 18:00 | Etxerat Taberna - AKTA | (Betrayer) |
| 18:00 | Txeyenex - Leya | (Etxerat Taberna) |

| **Iturripe A** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 14:50 | Alai Gozokiak - Abocajarro | (Komando Alpargat) |
| 16:00 | Komando Alpargat - Serengeti | (Alai Gozokiak) |

| **Iturripe B** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 14:50 | IKP - Dribling | (Txotx) |
| 16:00 | Fraguel Gol - Txotx | (Dribling) |

**Otsailak 11, domeka**

| **Zaldibar** | | **Epailea** |
|---|---|---|
| 10:50 | Kamasutra - EPEH | (Sass T) |
| 12:00 | Full Duplex - Sass T | (Kamasutra) |
| 13:00 | Pepelus - Iriztu | (Full Duplex) |

**Atsedena:** Kanpanzar Harrobia, AL Ion, Irati STS


¿Pensatu duzu aurtengo mozorro-jantzia?
Behar duzun guztia daukazu
Casa Ceciaga
Aukera zabala egindako mozorroetan
haurtxoentzat
haurrentzat
neska-mutikoentzat
helduentzat
Oihalak, karetak eta osagaiak
Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel•Fax: 79 12 62

## FUTBOLA
## Eskas

Partida eskasa jokatu zuen Mondraren lehen taldeak joan den domekan. Etxean hartu zuen Eibarko Gazteak taldea, eta galdu egin zuen (1-4). Huts asko egin zituen taldeak. Laupabost gol aukera izan zituzten, baina ez zituzten aprobetxatu. Eta hori gutxi balitz, aurkariei gol aukerak erraztu zizkieten. Asteburuan Oriokoren aurka jokatuko dute. Jokalariek beharrezkoa dute defentsa indartzea eta kontzentrazioa handitzea, norgehiagoka irabazi gura badute.

## ERRUGBIA
## Partida ona

Partida gogorra jokatu zuen zapatuan Arrasate Errugbi Taldeko senior taldeak, eta irabazi egin zuen Irunen aurka (20-17).

Partidaren lehenengo zatian oso makal ibili ziren, eta joko zakar eta gogorra erakutsi zuten bi taldeek. Bigarren zatian hobera egin zuten mondragoetarrek, baina hala ere, ezin izan zuten jokaldi on askorik egin. Horretan, Garagartzako zelaiak izan zuen zerikusirik, ez zegoen-eta oso ondo.

Arrasatearrek lau partida jarraian irabazi dituzte, eta horrek animoak eman dizkie gorantz egiteko. Zapatuan Elorrion jokatuko dute.

Bestalde, asteburuan hasi zen Sei Herrien errugbi txapelketa eta, hori dela eta, Arrasate Errugbi Taldekoek "Porra" atera dute Arrasateko erdialdeko tabernetan.

## SASKIBALOIA
## Emaitza estua

Partida zaila izan zuen Kenci Arrasate saskibaloi taldeak zapatuan. Iturripen jokatu zuen Arabako Unibertsitateko Kanpuseko taldearen aurka, eta galdu egin zuen (87-83). Arerio gogorra zutela bazekiten, eta hasieratik partidari gogor eusten ahalegindu ziren. Baina, zaila izan zuten, izan ere, lehenengo hamabost minutuetan bederatzi puntuko aldea atera zieten arabarrek, eta partida guztian atzetik ibili ziren arrasatearrak. Azkenengo minutuan norgehiagoka berdindu zuten (79-79), baina arabarrek punteria hobea zuten, eta garaipena eurendako izan zen. Datorren zapatuan Donostian jokatuko dute, Askatuak taldearen aurka.

## XAKEA
## Azken aurrekoa

San Andres A xake taldeak Hondarribiko taldearen aurka irabazi zuen joan den asteburuan (3,5-0,5). Urnieta taldeak ere, aurretik duen taldeak, irabazi egin zuen; hortaz, bigarren tokian dago Mondragoeko taldea.

Datorren astean jokatuko da ligako azken partida eta Arrasateko taldeak Urnietak baino puntu bat gehiago atera beharko du Gipuzkoako txapeldun izateko. San Andres D taldea ondo baino hobeto ibili da, eta horren saria jaso du, bigarren mailara igoz.

C taldea oso bestelako egoeran dago. Hirugarren taldeak promozioko partida irabazi beharko du mailari eutsi gura badio.

Arrasate B taldeak galdu egin zuen Gross C-ren aurka (2,5-1,5).

## ATLETISMOA
## Fitxaketa bikaina

Kluben arteko 14. Euskadiko txapelketa jokatu zen pasa den domekan Basaurin, eta Jonathan Perez atletak esku hartu zuen. Real Sociedad taldearekin lan bikaina egiten dabil arrasatearra.

Pertika jauzian, 4,40 metroko jauzia egin zuen, eta bere marka pertsonala gainditu zuen. Real Sociedad taldea lehenengo sailkatu zen esku hartu zuten zortzi talderen artean.

## PILOTA
## Udaberri txapelketa

Markagailuak ikustea besterik ez dago. Bigarren mailako kadeteek 2-22 galdu zuten eta lehen mailako gazteek, berriz, 9-22. Kadeteek Azpeitiko Ilunpe taldearen aurka jokatu zuten. Aurrelari azpeitiarra oso fin ibili zen eta mondragoetarrek ezin izan zuten ezer egin.

Gazteek Añorgaren aurka jokatu zuten.


**URONDO**
**Elektrizitatea**

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

**Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE**
**Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76**

# Mondra taldea larri-larri

Mondra taldearen egoera geroago eta zailagoa da. Joan den domekan jokatutako partidan 1-4 galdu zuen Gazteak taldearen aurka, entrenatzailerik ere ez duen taldearen kontra, hain zuzen. Inori meriturik kendu barik, baina Gazteak lagun taldea dela esan daiteke. Mondra, hala ere, ez zen talde horri irabazteko gai izan.

Asteleheneko Goienasport saioan Jose Luis Ezkurrak, Mondra taldeko presidenteak, gogorarazi zuen une honetan taldea hamaikagarren postuan dagoela, baina azken-herenak baino bi puntu gehiago dituela bakarrik. Hiru talde jaisten direla kontuan izanik, taldearen egoera 'larria' dela uste du Ezkurrak. «Taldeak iparra galdu du. Partida errazak galtzen ditugu, aurkari eskasen kontra jokatu arren, ez gara gai irabazteko. Gabonen ostean taldearen jokoa apur bat hobetu zela iruditu zitzaidan, baina etxeko partidetan ez dugu ezer egiten. Hortaz, Gazteak taldearen aurka 1-4 galtzea ez zen kasualitatea izan».



Jose Luis Ezkurra, Mondra taldeko presidentea.

Mondrako presidentearen iritziz, beharbada, Mondra erregionaleko talderik onena da, baina 'Mondrako arraza' falta zaio oraingo taldeari. Gauzak horrela, preferente mailara igotzea ametsa da une honetan. Hala ere, Ezkurrak garbi du Mondra taldeari ez dagokiola kategoria hori: «Mondra erregionalean eta justu-justu mailari eusten.... hori ezinezkoa da. Lan egin behar da. Argi dago Mondra izena edukitzea ez dela nahikoa mailaz igotzeko. Lehenengo minututik egin behar da lan futbol zelaian. Jokalariek eta entrenatzaileak ahaleginak egiten dituzte. Astean hiru aldiz entrenatzen dira, baina astebukaeretan ez dute emaitza onik lortzen. Beharbada, jokalari beteranoen falta nabari da». Era berean, zera azpimarratu zuen, Raul Leiba entrenatzaileak eta jokalariek Mondrako zuzendaritzaren babesa dutela, eta une honetan ez duela asmorik aldaketarik egiteko.

## Arrasate Hiria xake txapelketa

San Andres xake taldeak antolatu duen xake txapelketa gaur 19:00etan hasiko da, baina aurretik aurkezpen ekitaldia egingo da.

Arrasateko Udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da ekitaldia, eta hantxe izango dira Migel Angel Muela, Euskal Xake Federazioko lehendakaria, Ramon Jauregi, Aukeako lehendakaria, eta Arrasateko udal ordezkariak. Eugenio de Andresek, Arrasateko Xake Elkarteko idazkariak, egingo du aurkezpena. Erritmo arineko jokaldiak izango dira eta txapelketa itxia izango da. Ondoko hauek jokatuko dute, buruz buru:

Gerardo Fernandez-Eduardo Sanz; Luis Olaizola-Jesus Mª Agirretxe; Luis Ortega-Carlos Nava; Josu Tornay-Cristobal Limeres eta Isidro Ruiz-Txema Hermando.

Txapelketa Internet bidez jarraitu ahal izango da; helbidea honakoa da: *www.canal21.com.*

## Emaitzak

**PILOTA**
**Debarroko txapelketa**
- **Kadeteak:** Antzuola 4 - Arrasate 22
- **Jubenilak:** Antzuola 18 - Arrasate 22

**FUTBOLA**
- **Lehen erregionala:** Mondra 1 - Gazteak 4
- **1. mailako gazteak:** Ondarruko Aurrerak 1 - mondra 2
- **2. mailako gazteak:** Arrasate 1 - Antzuola 4
- **Ohorezko kadeteak:** Lagunonak 2 - Arrasate 1
- **2. mailako kadeteak:** Behobia 5 - Arrasate 2
- **Ohorezko infantilak :** Arrasate 0 - Antiguoko 2
- **Erregionaleko neskak:** Ilintxa 1 - Mondra 0

**ESKUBALOIA**
- **Kadeteak:** Arrasate 12 - Bidasoa 30
- **Gazteak:** Arrasate 22 - Urnietako 13
- **Seniorrak:** Arrasate 24 - Tolosa 22

**ERRUGBIA**
- **Seniorrak:** Arrasate 20- Irun 17

**SASKIBALOIA**
- **Seniorrak:** Araba 87 - Kenci Arrasate 83
- **Juniorrak:** Arrasate 65- Bergara 60
- **Kadete neskak:** Arrasate 22- Aldapeta 75
- **Kadete mutilak:** Kenci Arrasate 45 - Easo Askatuak 43

## Jokatzekoak

**FUTBOLA**
Zapatuan
- **Ohorezko Kadeteak:** Arrasate-Eibar, 10:30ean
- **Lehen mailako gazteak:** Arrasate-Antoniano, 16:00etan

Domekan
- **Bigarren mailako gazteak:** Arrasate-Antiguoko, 10etan
- **Erregionaleko neskak:** Arrasate- Urki, 12:00etan

**PILOTA**
**Euskal liga**
Zapatuan, 16:00etan Uarkapen
- **Nagusiak:** Arrasate - Pilotajauku (Altsasu)

**Udaberri saria**
Zapatuan, 17:00tan Uarkapen
- **Kadeteak 1.maila:** Arrasate - Hernani
- **Jubenilak 1.maila:** Arrasate - Aizarnazabal
- **Nagusiak:** Arrasate - Ilunpe (Azpeitia)

# Gazte ikastaroak

## euskal dantzak

- **Lore Gazteak** taldearekin elkarlanean
- 10 urtetik gorakoendako
- martxoaren 2tik San Juanak arte
- ostiraletan, ordutegia: 19:00-20:30
- matrikula: 1.000 Pta

## literatura tailerra

- **Irakaslea: Jon Alonso**
- martxoaren 15etik apirilaren 5era
- ostegunetan, ordutegia: 18:00-20:30
- Monterronen
- matrikula: 3.000 Pta/2.000 ikasle eta langabeentzat

## Alboka

- otsailaren 3tik San Juanak arte (hasita dago, baina oraindik leku batzuk daude)
- hastapen eta sakontze mailak
- larunbat goizetan
- **ordutegia:** hiru txanda: 10:00-11:00; 11:00-12:00; 12:00-13:00
- Arrasate Musikalen
- Matrikula: 3.000 Pta/ 2.000 ikasle eta langabeentzat.

## Txalaparta

- otsailaren 12tik maiatzaren 11ra
- hastapen eta sakontze mailak
- astelehen (20:00-21:30) eta ostiraletan (20:00-22:00)
- Musakolako Saloian
- matrikula: 3.000 Pta/2.000 ikasle eta langabeentzat.

**IZEN EMATEA: Gazte bulegoa • Tel.: 943 77 00 65**

ARRASATEKO UDALA Gazteria Saila

# Arrasateko kultura errealitatea aztergai



**Mondragoeko bizitza kulturalaz erreflexio jardunaldia antolatu dute otsailaren 17rako.**

Arrasateko kultura eskaintza eskasa, urria, elitista, kontserbadorea, uniformea, garestia... dela baderitzozu, orain duzu zure iritziaren bidez gauzak aldatzeko aukera.

Adjektibo horiek sarritan entzun izan dira kalean. Hori jakinda, AED elkarteak eta Arrasateko liburutegiko arduradunek, Mondragoeko bizitza kulturalaz erreflexio jardunaldia antolatu dute otsailaren 17rako.

**HIRU IKUSPUNTU**

Goizeko 10etatik aurrera hainbat ekitaldi egingo dira: lehenengo, Arriola Kultura Aretoko (Elorrio), Berbaro Elkarteko (Durango) eta Korrika Kulturala eta Sosioux Elkarteko (Ermua) bozeramaileek euren proiektu kulturala eta programazio politika aurkeztuko dute, mahai inguruan; 12:15ean atsedena egingo da; eta 12:30ean Arrasateko kultura errealitateaz eztabaida irekia egingo da. Herriko kultura erakunde guztiak gonbidatuta daude, eta baita, jakina, herritar guztiak ere, eurek izan dezakete-eta zeresan gehien. Arrasateko kultura eskaintzaren alderdi guztiak landuko dituzte, eta zelan hobetu daitezkeen ere aztertuko dute.

**BIZIBERRITU NAHIA**

Jardunaldi horiek egiteko ideia ez da bat-batean suertatu. Gabonen aurretik, AEDk eta liburutegiko arduradunek inkesta bat prestatu zuten, herritarrengandik hainbat iritzi eta proposamen jaso ondoren. Antolatzaileen esanetan, inkestako erantzunak ikusita, denetariko iritziak jasotzen dira, baina baita erantzun komunak ere: gehienen ustez, Arrasateko kultura eskaintza biziberritu beharra dago.

**ESPERIENTZIA ABERASGARRIAK**

Arriola Kultur Aretoan nahiz Berbaro Elkartean badute esperientzia alor horretan. Elorrioko nahiz Durangoko elkarteak, egitarau oparoa prestatzeko gai dira, eta euren ekintzek jende ugari erakartzen dute.

# Medikuntzaren beste aurpegia, zine-klubean

Sufrimenduak, egonezinak eta giza harremanek sortzen duten biolentzia da Sachs medikuak erabili behar duen lehengaia. Errukiz gainezka sentitzen da, eta horrek gaixoarazi egiten du. Horri osabidea emateko, mediku horrek idatzi egiten du: hortik dator eguenean zine-klubean emango den filmaren izenburua. Eguenean emitituko da, Amaian, 21:30ean.

**TAVERNIERREN ZORDUN**

Michel Deville frantsesak zuzendu du *Las Confesiones del Doctor Sachs*, eta Albert Dupontel da protagonista. Donostiako Zinemaldian zuzendari eta gidoi onenaren sariak irabazi zituen. Martin Winkleren hizlauan oinarritzen da, baina asko zor dio baita Bernard Tavernierren *Diario de un cura rural* filmari ere. Errealismotik gertutasuna bilatzen duen zineman sartzen da honako pelikula.

**AMAIA ANTZOKIAN**

Zine klub emanaldiak Amaia Antzokian izaten dira eguenero gaueko 21:30ean. Sarrera 450 pezeta eta gazte txartelarekin 400.

Aurreratu gainera, datorren eguenean, hau da, hilaren 22an *The Acid House* filma izango dela ikusgai. Paul MC Guiganek zuzendu zuen film hau.

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tel.: 943 79 87 74
ARRASATE

## Tribu Chaman

*Supervivencia* izeneko disko berria kaleratu berri dute. Bost musikarik parte hartu dute disko honetan, tartean Iñaki Bruña arrasatearrak. Tanborra, darbuka eta perkusioa jotzen ditu Iñaki Bruñak. Izan ere, diskoan perkusio doinuak dira nagusi.

Disko hau Biona, Jai zale, eta Ispilu tabernetan dago salgai, 2.200 pezetaren truke. Guztira 12 kantuz osatuta dago *Supervivencia* diskoa.




# Korrika batzordea eratu da



Joan den astelehenean eratu zen Arrasateko Korrika batzordea, Erdu AEKren ekimenez. Mundu bat euskerara bildu da aurtengo leloa. Batzordearen egitekoa da Korrika Arrasatetik pasatzen denerako guztia antolatua izatea. Korrika martxoaren 29an irtengo da Gasteiztik, eta apirilaren 8an iritsiko da Baionara; guretik apirilaren 2an pasatuko da.

Besteak beste, aurten kontzertua egiteko asmoa dago, eta hori izango da prestatu beharreko ekintza bat. Martxoan izango da emanaldia.

## Eskola antzerki jardunaldiak abian daude

Arrasateko eskola-ume eta gaztetxoengan antzerki zaletasuna sustatzeko asmoz, abian daude berriro eskola antzerki jardunaldiak. Udaleko Hezkuntza Sailak antolatu ditu, Kultura Sailarekin elkarlanean, 1.443.040 pezetako aurrekontuarekin.



**MARTXOA ARTE**

Hiru alditan garatuko da ekimen hau. Lehenengoan, martxoa arte, Amaia antzokian, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoek antzerki saioak ikusiko dituzte. Garai berean, 6. mailakoek Amaia antzokiko instalazioak bisitatuko dituzte. Azkenik, martxoa bukaeran, DBHko ikasleek antzerki obrak taularatuko dituzte.

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

# Bakalau doinuak eta internet

## Draxtor Astelehenero 21:00etan

**18 urteko hiru arrasatearrek osatzen dute Draxtor musika irratsaioa: Mikel Marmolejo 'Feo', Daniel Markez eta Dorleta Rodrigezek 'Dorgintxuk', hain zuzen ere. Progresive, techno, dance, hitz gutxitan esanda, 'bakalau doinuak', oinarri hartuta, interneteko azken berriak ere ematen dizkigute, eta baita entzuleari '5etik 1era' top zerrendan esku hartzeko aukera ere.**



**— Zer dela eta Draxtor? Noiztik?**

— Gu bi urte dela-edo hasi ginen; azken fitxaketa 'Dorgintxu' da. Baina, Draxtor lehenagotik dator; Errukane, Belen eta Igor ziren orduko esatariak, eta guri irakatsi ondoren, guk hartu genuen lekukoa.

**— Esatariak ez dira, dena dela, aldaketa bakarra.**

— Ez, saioaren oinarria bera den arren, berritasunak ere tartekatu ditugu, internetekin lotutako tartea, esateko. Tarte honetan, aipatu musikarekin lotutako bitxikeriak eta helbide garrantzitsuenen berri ematen dugu.

**— Internet tresna garrantzitsua, hortaz, Draxtor-en.**

— Bai, entzuleek ere askotan bidaltzen dizkigute mezu elektronikoak. Bide batez, esan behar da helbide berri bat dugula: *Draxtor@terra.es.*

**— 'Bakalau musika' oso definizio zabala da. Zer eskatzen du jeneralean jendeak?**

— Technoa da gehien eskatzen duten estiloa, baina beste doinu batzuk ere tartekatzen ditugu.

arrasate irratia

FM 107.7

| ASTELEHENA - OSTIRALA | |
|---|---|
| 09:00 | **Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.** |
| 09:55 | **Eguneko hitzorduak.** |
| 10:00 | **Igo autobusera I.** |
| 11:00 | **Albistegia.** |
| 11:15 | **Igo autobusera II.** |
| 12:30 | **Agenda, eskelak...** |
| 12:45 | **Albistegi nagusia.** |
| 14:00-18:00 | **Errepika.** |

| ASTELEHENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Jokoz Kanpo.** |
| 21:00 | **Draxtor.** |
| 22:00 | **In Session.** |

| MARTITZENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Hi bizi hadi.** |
| 21:00 | **Jakidiplost.** |

| EGUAZTENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Binilordua.** |
| 21:00 | **KK2A.** |

| EGUENEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Ostegun-Ero.** |
| 21:00 | **Arakatzen.** |

| EGUBAKOITZEAN | |
|---|---|
| 20:00 | **Planing Prest.** |
| 21:00 | **Kale Doinuak.** |

| ZAPATUAN | |
|---|---|
| 10:00 | **Bihurrikerietan.** |
| 11:00 | **Musika klasikoa.** |
| 12:00 | **Bi zoro ta zu.** |

mikel urdangarin
**arrasate irratian**

**Ostegunean, goizeko 10:15ean, Igo autobusera saioan**



kontzertuak

BERGARAKO **JAM ETA GO-JAM**EKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Otsailak 15: **The smugglers**

Otsailak 16: *Blues gaua* **Giroux eta Majun**

**2** sarrera egun bakoitzerako zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

**Izen-deiturak:** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

**Tel.:** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31.**

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

MADINA ZURAK
Aroztegia
Olak, aglomeratuak, kontratxapatuak, tablexa, ateak, egurrezko leihoak, oin-inguruak, zangoak, aroztegiko osagarriak.
Zarugalde, 38 •Tel.: 943 79 13 78

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ML
ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65



Izeba mojaren urtebetetzea zela eta, zorion opari moduan abesti batzuk kantatu zituzten argazkiko bost neskatilek. Plazentzian izan zen ekitaldia; izan ere, izeba moja, Ama Angela Arabaolaza, Plazentziako Mesedetakoen eskolako Ama Nagusia zen eta hango eskolako mojengandik jaso zuten kantatzeko eskaera.

Apurtxo bat urduri, baina bost neskatilek fin asko egin zuten kantu saioa, eta bukaeran txalo ugari jaso zuten. 1961. urtea zen.

Kantariak, ezkerretik hasita, hauexek dira: Jesusi Etxebarria, Mertxe Etxebarria, Achen Etxebarria, Begoña Etxebarria eta Maritxu Muñoa.

***Argazkia eta berriemailea:***
*Achen Etxebarria*




HAURTZAINDEGIA
ZERO urtetik
9.300 pzta. hilean
HAUR hezkuntza
LEHEN hezkuntza
D. B. H.
D eredua
943 79 27 73
la merced
IKASTETXEA




Opel Astrak, serieko ekipamenduarekin, denetarik dauka: •ABS sistema•Aurreko aire poltsak •Alboetako aire poltsak•Direkzio lagundua•Kristal-igogailu elektrikoa aurrealdean•Ateen itxidura zentralizatua urrun-managailuarekin•Bolante erregulagarria•Autoa ez lapurtzeko sistema elektronikoa •Orain, aire girotu eta guzti, 1.960.000 pezetatik aurrera

*11.70 €. P.V.P. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Opel Astra 1.6 Club, 3 ate. Hau guztia barne: promozioa, BEZ, matrikulazio zerga, garraioa eta Prever Plana berundun gasolina autoetan. Hil bukaera arteko promozioa.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g • Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn • Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86